



Idiazabalgo Udala

EZOHIKO UDALBATZARRA

2023ko ekainaren 17an

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: José Agustín Urteaga Usandizaga

ZINEGOTZIAK:

Iñaki Alberdi Iparragirre
Jone Ormazabal Zabaleta
Aimar Lizarazu Iztueta
Ioana Prados Alustiza
Iñaki Arriaran Murgiondo
Jaione Munarriz Aramendi
Eunate Elio Cemborain
Francisco Javier Mugica Olaizola
Mikel Mugica Romero
Aitziber Aizpuru Ceberio

IDAZKARIA: Garazi Arraibi Larrea

BATZARRA: Ezohikoa.

DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 12:00etan

1. Udal-gobernu berriaren eraketa

Idazkari Kontu hartailleak bertaratu guztiei ongi etorria eman die eta azaldu du Hauteskunde Erregimen Orokorra Arau tzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak aurreikusitako prozedurak jarraituz, Idiazabalgo Udalbatza eratu eta Idiazabalgo Udaleko Alkate-udalburuaren hautaketa egin behar dela. Horretarako, **Adineko Mahaia eratu** behar dela

Adineko Mahaia eratu da José Agustín Urteaga Usandizaga eta Ioana Prados Alustiza zinegotziekin, Udal Idazkariarekin batera. Adineko Mahaiak hautagaiak identifikatu ditu eta egiaztatu du gehiengo absolutua bertan dagoela. Konprobatu da, baita ere, arkeoa eginda dagoela, zinegotzien kredentzialak badaudela eta guztiek aurkeztu dituztela ondasun eta jardueren aitorenak.



Idiazabalgo Udala

Behin hori eginda, **Idiazabalgo udal korporazioa eratu da**. Horretarako José Agustín Urteaga Usandizagak, Adineko Mahaiaren Lehendakariak hautagai bakoitzari galdetu die: «Zin egiten duzu edo hitz ematen, zure kontzientzia eta ohoreagatik, karguaren eginbeharrak leialtasunez zintzo beteko dituzula eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko duzula, Estatuaren arau nagusia baita, eta Gernikako Estatutua eta hartatik etorritako gainerako legeak beteko dituzula?»

Hautagai guztiek baietz esan dute, gehiengoek “legeak horrela aginduta” erantzunez.

Hortaz, hamaika zinegotziz osatutako Idiazabalgo Udalbatza 2023ko ekainaren 17ean egindako ezohiko bilkuran eratu da.

Ondoren, **Idiazabalgo Udalaren Alkatea hautatzea** burutu da.

Idazkariak adierazi du zerrenda bakarra dagoela, Iñaki Alberdi Iparragirre izanik bere burua alkategai aurkeztu duen bakarra.

Iñaki Alberdi Iparragirre EH-Bilduren zerrenda-burua Idiazabalgo Alkatea izateko proposamena bozketan jari da. Bozketa egin da eskua altxatuz.

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre, Jone Ormazabal Zabaleta, Aimar Lizarazu Iztueta, Ioana Prados Alustiza, Iñaki Arriaran Murgiondo, Jaione Munarriz Aramendi, Eunate Elio Cemborain, José Agustín Urteaga Usandizaga.

Kontra: Ez

Abstentzioak: Francisco Javier Mugica Olaizola, Mikel Mugica Romero, Aitziber Aizpuru Ceberio

Hortaz, Iñaki Alberdi Iparragirre EH Bildu alderdiaren zerrenda-burua 2023-2027 agintaldirako Idiazabalgo Udaleko Alkate-udalburua hautatu dute.

Ioana Prados Alustiza zinegotziak galdetu dio: «Zin egiten duzu edo hitz ematen, zure kontzientzia eta ohoreagatik, Lehendakari karguaren eginbeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzo beteko dituzula eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko duzula, Estatuaren arau nagusia baita, eta Gernikako Estatutua eta hartatik etorritako gainerako legeak beteko dituzula?»

Iñaki Alberdi Iparragirre jaunak zin egin du, legeriaren aginduz.

Iñaki Alberdi Iparragirre Alkateak hitza hartu du eta zinegotziei (egon direnei eta orain daudenei), udal langileei, herriko eragileei eta familiei eskerrak emanda, aipamen berezi egin die Andres Berasategi, Montse eta Kepari. Era berean, proiektuak aurrera eramateko herritar guztien zein langileen beharra dagoela aipatu du, guztien partaidetza beharrezkoa dela eta oso estimatua izango dela adieraziz.

Alkatearen oniritziarekin, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko hamabiak eta laurdenetan eta agiri hau jaso da.

O.I
ALKATEAK
Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Garazi Arraibi Larrea